



*Bestelako lankidetzak*

## **NI-tik GU-ra, tailer-giroan**

*Yolanda Arrieta Malaxetxebarria\**

Bi tailer egin berri ditut euskara-irakasleekin: bata, idazketa sortzailearen inguruan; bestea, literaturaren ahozko baliabideak ardatz hartuta. Ez dira lehenak, ia mende laurden baitaramat esanak eta idatziak josten, bakar-ka nahiz taldean.

Tailerrotan egin duguna idatziz azaltzeko eskatu didate. Tailerron motorra ekinez ikastea izanik, zaila egiten zait modu informatzaile hutsean aritzea. Artikulu hau izan bedi, bada, tailerron berariazko izana ere ezagutzeko lagina.

### **1. Aurkezpen gisa: nire etxea**

Hiru zutabe ditu nire etxeak: euskara, sorkuntza eta hezkuntza. Emozioak dira gelak; zentzumenak, leihoak eta balkoiak. Ganbaran gordetzen ditut iragan-uztak eta biharko planoak; hormetan, berriz, letrak, aditzak eta esaldiak. Logikaz atontzen ditut salak eta pasilloak. Irudimenez elikatzen ditut eskailerapeko despentsak.

Hiru zutabe ditu nire etxeak eta oinarri bat: zeroa.

---

\* [www.nitikgura.com](http://www.nitikgura.com)

### 1.1. Zeroa, oinarri anitz

Nire etxea obretan dago beti, eta zeroa du euskarri. Zeroa ez da hutsala, ordea. Zeroa sistema bat da, elkar elikatzen duten elementuz osaturiko ekosistema.

Edo, beste era batera esanda, nire etxeari eusten dion lurra.

### 1.2. Lurra, ekosistema

Baieztapen nagusi bat: “Denok gara sortzaile, irudimenarekin eta sentitzeko ahalmenarekin jaio garelako”.

Hiru balore. Autonomia: “gai naiz”. Baikortasuna: “egin dezaket”. Kuriositatea: “ea zer ateratzen zaidan, ea zer atera zaien”.

Aditz pizgarri aldrea bat: sortu, irten, jaio, jalgi, azaleratu, atera, erne, agertu, hazi, kimatu, azaldu, bilatu, deskubritu, eratu, antolatu, erakutsi, kontatu, esan.

Pentsamendu baikorra. “Bergia non jarri, hura ikusiko dugu”. Ea, bada, zer ikusten dudan. “Emozioa nola bideratu, halaxe sentituko dugu”. Ea, bada, zer sentitzen dudan. “Eskarmentua nola kudeatu, halaxe pentsatuko dugu”. Ea, bada, zer ikasten dudan. “Bizitza nola dastatu, halaxe sortuko dugu”. Ea, bada, zer ari den gertatzen une honetan nire inguruan.

### 1.3. Lehen zutabea: euskara

Artean ura baino ez zen eta ni taupada soil bat, taup-taup. Itxura hartzen hasi nintzen gero: haragi-pusketa bat egunean, atal txiki bat ilargialdi baikoitzean. Ura eta taupada forma hartzen ari ziren, bada, kanpoko hotsekin batera, urratsen konpasean. Beranduago etorriko ziren izenak; beranduago, hitzak eta aditzak...

Eguzkia goitik zebilen, urak amaren ohea busti zuenean. Jaio da!, esan zuen ahots lodi batek. Neska da. Begiak zabaldu nituen, eskuak jaso nituen, oihu egin nuen. Non nago? *Oo*, aditu nuen, belarritik gertu, xuxurla ezagun bat, *oo*. Ondoren, silaba bikoitza: *lo-lo*.

*Oo, oo, lo-lo...* Lelo hura sosegua zen, kulunkada epela esnea heldu bitartean.

Artean, jada, urik ez zen nire inguruan, baina jana bai, usaina bai eta doinua ere bai: euskara.

### 1.4. Bigarren zutabea: sorkuntza

Izenekin batera iritsi zen, esanak eta izanak frogatzen hasi ginenean. Helduek *jolastu* deitzen zioten. Guk, *bizi*. Fikzioak neurri berria eransten zion egunari eta urtaro luzeena bihurtzen zen uda, argudio matematikoak gorabehera.

Halaber, *handi* izateko ikasten jarraitu behar zen, eta halaxe egin nuen neuk ere. Letretan bederatzi eta zenbakietan zortzi eta erdi atera nuen. Gimnasian, bost justu.

Soinketarik gabeko karrera mistoak egin ditut, bada. Eta oso gustura. Hala ere, bakarkako zirriborrogintzan aurkitu dut umetako uda luzeen hazia: intentsitatea.

Harrez gero, zirriborro mistoak egiten ditut urtaro argia iritsi bitartean, eta areagotu egiten da intentsitatea lehen pertsona pluralean ari garenean.

Oso handi sentitzen gara horretan ari garenean, nitik gura.

Beti udan.

### **1.5. Hirugarren zutabea: hezkuntza**

Frogatuta dago ikasten jarraitzeko erarik onena irakastea dela. Frogatuta dago, baita ere, gazterik mantentzeko erarik onenetariko ikasten jarraitzea dela.

Beraz, ikasten jarraitzeko erarik onena irakastea baldin bada, eta gazterik mantentzeko erarik onena, berriz, ikasten jarraitzea, gazterik mantentzeko hautua egiten dut, irakatsiz ikasten dudana bitartean.

Hori bai, hezkuntza ez-formalean.

(Bai berogailuen urtaroan, bai hostoenean, bai orbelarenean, bai udan).

### **1.6. Hormak: letrak, aditzak eta esaldiak**

Alfabeto berri bat aldarrikatzen zuen Amaia Lasak (1971). Nik, alfabeto propioa. Hizkuntza formala etxera erakartzeko. Egitura arrotzak beratzen jartzeko. Denbora apaintzeko. Doana kontatzeko. Ari dena atzemateko. Zentzua mozorrotzeko. Esana biderkatzeko. Adimena antolatzeko. Ekiteko. Osatzeko. Moldatzeko. Garbitzeko. Zehazteko. Galtzeko. Aurkitzeko. Gogoratzeko. Kontatzeko. Esateko. Partekatzeko. Asmatzeko.

Naizena harrapatzeko.

### **1.7. Gelak: emozioak**

Alferrik esango didate obulu-espermatozoide elkarketa bati zor diodala naizena. Emozioa izan zen motorra; edo, hobeto esanda, emozioak. Bi lagun, bi gorputz, bi bihotz, bi buru eta nahia, bizinahia, iraun nahia, atxiki nahia. Eta maitasuna. Eta erakargarritasuna. Eta ilusioa. Eta ez hori bakarrik, ez diot inori galdetu, baina ziur nago inguruan zerabiltzatela sorpresa eta intriga; eta gertu, oso gertu, baita ere, beldurra eta zalantza, une indartsuetan emozioak kuadrillan ibili ohi direlako sarri.

Bai, alferrik esango didate zelula multzo baten emaitza naizela: emoziorik gabe, ez gara nor, ez goaz inora.

Nik neuk gela bana atondu diet.

Hala badakit non dabilen bakoitza.

**1.8. Leihoak eta balkoiak: zentzumenak**

Nire etxeko atea leiho handi bat da, kanporantz irekitako balkoia. Bertatik sartzen dira goizeko eguzkiaren berotasuna eta iluntzeko izarren distirra. Bertatik ikusten dut ilargia pijama janzten eta hodeia euri bilakatzen. Bertatik aditzen dut kilkerraren deia; bertatik auzoaren tipi-tapa.

Nire etxeko leihoa balkoia ere baden atea da. Zabaldu egiten dut mundua jaso nahi dudanean eta zarratu, berriz, munduari neurean leku egin nahi diodanean.

Nire etxeko balkoia leiho zabal bat da, zu eta ni lotzeko nahiz bereizteko atea.

**1.9. Ganbara: oroimena eta irudimena**

Kanpoko begiek bikiak dituzte barruan. Ez dakit irisik edota ninirik badaukaten, ez dakit malkorik isurtzen duten ere, baina egon badaude, eta, ondorioz, izan ere badira, zeregin zehatz eta garrantzitsuak betetzen ditzutelako. Agerikoeak uneari erreparatu ahala, ezkutukoek jasotakoa gorde eta aurretik bildutakoarekin lotzen dute, askotan, usain, hots eta guzti, halako txoko berezi batean, erdi-ganbara erdi-biltegian, eta, orduan, zerbait gogoratu nahi dugunean, txoko berezi horietako begi gorde horiek zabalitzen dira tak!, eta berriro ikusten dugu iraganeko hura, eta berdin gertatzen da norbaiti pasatutakoa geureganatzen dugunean ere, entzun, ikusi, sentitu, dastatu, ukitu edo irakurritakoa txoko berezi horretan sartzen da eta bertako begiekin ikusten dugu, ia-ia guri geuri jazo izan balitzaigu bezala, eta horrela lortzen dugu behin edo behingoa asmatzea ere, txoko berezi horretan aterik gabeko bi gelaxka daudelako, elkarrekin lanean, elkarrekin paseatzen, bata **Oroimen** izenekoa, bestea **Irudimen**.

**2. Etxetik mundura eta buelta: NI-tik GU-ra, tailer-giroan**

Tarteka-marteka, bueltatxo bat ematera ateratzen naiz, maleta bete etxe hartuta, tailer-giroan.

Ipuin liburuak eta poesia daramatzat maletan. Eta musika. Eta kolorezko orriak. Tamaina askotakoak. Kolorezko errotuladoreak. Boligrafoak eta arkatzak. Pilota bat. Oihala eta haria. Paper-erroilu luzea, aldian aldiko beharrei egokiturik neurrira ebakitzeko aukera uzten didana. Eta plan bat: noan lekuko partaideekin unea bizitzea.

Nola?

• **Euskaraz sentituz.**

Nik zuri zerbait esan eta zuk niri aditu. Zuk niri zerbait esan eta nik zuri aditu. Agian ez didazu esaldi osoa esango, agian ez duzu aditz konposaturik jokatu, agian jera soil bat egingo didazu, eta, ondoren, hitz bakarra ahotzkatuko. Beharbada, esku-keinuz lagunduriko onomatopeia bat erabiliko duzu, eta, akaso orduan ere ez duzu hotsik aproposena hautatuko, baina, begietara, bai, begietara begiratuko didazu, eta nik ere gauza bera egingo dut zu-

rekin konektatzeko, alegia, zeharkako bide guztiak frogatuko ditut zuregana heltzeko eta, ikusezinak izanagatik, begitik begira sartzen diren geziak erabiliko ditut nire NI-a zurearekin lotzeko. Eta, orduan, tak!, zure ezpainen-tan dar-dar ttipi bat atzemango dut, mezua iritsi zaizun seinale. Eta orduan ohartuko naiz, akaso, esan nahi dudanaren erdia baino ez duzula erabat uler-tu, baina berdin dio, NI-tik ZU-rako saiakeran GU txiki bat eraiki dugu-lako.

- **Euskaraz sortuz.**

Agian, ez dakizu. Agian, inoiz ez duzu frogatu. Agian, ez dizute aipatu ere egin. Baina ahal duzu. Zeuk ere sortu ahal duzu. Zeuk ere eraiki ahal duzu. Sentitzeko ahalmenarekin jaio zarelako. Oroitzeko gai zarelako. Behin edo behin amets egin izan duzulako.

Agian, oraindik ez dakizu, baina, bai, gai zara abiapuntu bati modu propioz erantzuteko. Gai zara hitzen musika gordea aditzeko. Gai zara eskuekin be-gien norabidea markatu eta esateko: euskaraz sortu nahi dut.

- **Euskaraz zabalduz.**

Hezkuntza formala ez ezik, baita ez-formala ere. Modu batek huts egite-an, beste bati oratzeko. Bide batek oztopo egiten dizunean, beste batetik abiatzeko. Korapiloari begira ez geratzeko. Ez aurrera, ez atzera zaudene-an, beste nonbaitetik tira egiteko. Jarraitzeko. Abiadak aldatzeko. Ikaste-ko moduak ordezkatzeko. Ikasia duzuna modu librean erabiltzeko. Zeure burua frogatzeko. Ezina erronka bilakatzeko. Garatzeko. Kexen klubeko harpidetzarik ez ordaintzeko. Bizirik zaudela sentitzeko. Bakantasuna des-kubritzeko. Bakantasuna ospatzeko. Bakantasuna partekatzeko.

Zeure burua euskaraz zabaltzeko.

*2.1. Ahozko  
baliabideak  
lantzeko tailerra:  
Hitzen musika,  
kolorea, gustua,  
usaina eta ukitua*

Ahozkotasuna ozenki jardutea baino askoz gehiago da: aditzei zentzua emate-a da, puntuak aditzea, galderak uhin bilakatzea, esaldiei hatsa eta arna-sa oparitzea.

Ahozkotasuna oroimena piztea da, irudimena askatzea, unea bizitzea, de-nak batera.

Ahozkotasuna zu nirekin egotea da, eta ni zurekin joatea; aulkitik altxatu gabe, hegan egitea.

Ahozkotasuna ahoa zabaldu aurretik besteekin egotea da. Azaletik arima-ra txango eta buelta. Esperientzia bat. Fikzio erreal bat.

Honenbestez, tailer honen helburua ahozko jardueraren xarma piztea da. Ahozkoan hitzari ahotsa jarri behar zaio, eta ahotsa beti dago lotuta per-sonaren barne-munduarekin. Barne-munduan bizi dira emozioak, oroimena, irudimena eta zentzuetatik sartzen zaigun informazioa, pertzepzioa. Era be-

rean, pertsona pertsonekin lotzen da ahozko jardueretan. Beraz, ahozkoan, pertsonen arteko barne-munduak dira harremanetan jartzen direnak. Barne-mundu horietara iristeko zer gauza hobea, literatura baino? Guk poesia darabilgu, ahozkoarekin eta barne-munduarekin ondoen doan generoa delako.

Laburtuz, bada, jende aurreko ahozko jarduerak hiru atal nagusi bereizi ohi ditu: azalpen egituratua, errezitazioa-irakurketa ozena eta ideia bati loturiko jarduera askea. Aitzitik, ezin ahaztu hiru atalok pizturik mantentzen dituen motor bizia: kontatzearen xarma, transmititzen ari garen emozioa. Tailer honetan, hain justu, motor horixe pizten dugu guk, ahozko jardueraren ororen bizigarri modura.

**2.2. Idatzizko  
baliabideak  
lantzeko tailerra:  
Idazketa  
sortzailea,  
NI-tik GU-ra**

Aditza, gramatika, hiztegia, egiturak nahiz deklinabidea modu librean lantzeko aukera ematen du idazketa-tailerrak. Era berean, idazlanak elikatzeko entrenamendu aparta izateaz batera, euskara norberaren NI-arekin konektatu eta besteekin partekatze bidea eskaintzen digu. Honenbestez, gauzak idatziz kontatzeko entrenamendu bat da idazketa-tailerra.

Bestalde, originaltasuna da sormenaren ikur nagusia. Originala izatea norbera izatea baino ez da, ordea. Gutariko bakoitza izaki original eta bakarra denez gero, norberaren NI-tik kontatzen eta idazten trebatzen gara. Era berean, zeinek bere idatzia besteen aurrean irakurtzean ohartzen gara, bat, abiapuntu berari erantzuteko aukera mordo bat dagoela, eta bi, aukera berri horiei erantzun propioa ematea dela, hain zuzen ere, sortzailea eta originala izatea.

Halaber, sormenak bide paraleloak eta kontrapuntuak ere maite ditu, hots, errealitatea interpretatzeko ikuspuntu berriak. Jarrera baikorra eta irekia behar dugu horretarako. Beraz, ohikotasuna aparkatu eta jolasean aritzen gara, jolasean nor bere buruarekin eta gainontzeko partaideekin, hanka sartzeko beldurrik gabe, harritzeko prest, bidean zer deskubritu, zabal eta adi.

Azkenik, idaztea oroimenak asmatzea ere badela frogatzen dugu testu arrotz bat geure eginez, testuko protagonista bihurtuz, testuko jokoari jarraituz. Era horretara konturatzen gara jasotako informazioa nork bere galbahetik iragazi ondoren geratzen dena dela benetako jakituria.

## **Bibliografía**

- Andruetto, M. T. (2004). *Hacia una literatura sin adjetivos*. Córdoba, Argentina: Comunicarte.
- Andruetto, M. T., eta Lardone, L. (2008). *La escritura en el taller*. Madrid: Anaya.
- Bachelard, G. (1958). *La poética del espacio*. México: Fondo de Cultura Económica.
- Bulat, S. (2006). *Coaching para escribir*. Barcelona: Paidós.
- Cassany, D. (1995). *La cocina de la escritura*. Barcelona: Anagrama.
- Cassany, D. (2006). *Taller de textos*. Barcelona: Paidós.
- Dillard, A. (2002). *Vivir, escribir*. Madrid: Ediciones y Talleres de Escritura Creativa Fuentetaja.
- Goldberg, N. (2015). *El gozo de escribir*. Barcelona: La Liebre de Marzo.
- Hernandez Abaitua, M. (2011). *Narrazio tailerra*. Donostia: Erein.
- Kohan, S. A. (1998). *Cómo lo reescribo: la herramienta del escritor. Vías y opciones para conseguir un buen relato*. Barcelona: Grafein D.L.
- Kohan, S. A. (2004). *Los secretos de la creatividad: técnicas para potenciar la imaginación, evitar los bloqueos, plasmar las ideas*. Barcelona: Alba.
- Lasa, A. (1971). *Poema bilduma*. Donostia: Herri Gogoa.
- Moreno, V. (1998). *Va de poesía*. Pamplona-Iruñea: Pamiela.
- Moreno, V. (2004a). *El deseo de escribir: propuestas para despertar y mantener el gusto por la escritura*. Pamplona-Iruñea: Pamiela.
- Moreno, V. (2004b). *Leer con los cinco sentidos*. Pamplona-Iruñea: Pamiela.
- Moreno, V. (2008a). *Dale que dale a la lengua - Tomo I- Propuestas para hablar y escribir textos narrativos y descriptivos*. Pamplona-Iruñea: Pamiela.
- Moreno, V. (2008b). *Dale que dale a la lengua - Tomo II- Propuestas para hablar y escribir textos expositivos, argumentativos, instructivos y lúdicos*. Pamplona-Iruñea: Pamiela.
- Queneau, R. (2007). *Estilo ariketak*. (Xabier Ollarra, itzultzailea). Madrid: Igela.
- Sánchez Lobato, Jesús (koord.).(2006). *Saber escribir*. Madrid: Instituto Cervantes – Aguilar.
- Sarrionaindia, J. (2010). *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako*. Donostia: Xangorin.
- Sierra i Fabra, J. (2006). *La página escrita: cómo escribir, crear personajes, hacer un guión, buscar una técnica más adecuada para cada relato*. Madrid: S.M.
- Zenbaiten artean. (2011). *El taller de escritura creativa: en la escuela, la biblioteca, el club*. Córdoba, Argentina: Comunicarte.